

BAOn 2022-04-06 argitaratuta

BERMEOKO UDALA

2022ko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkurak Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren barne-arautegiaren aldaketa hasiera batean onartutako erabakia.

BERMEOKO MENDILUZ UDAL HILERRIAREN BARNE-ARAUTEGIA

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bermeoko Mendiluz Udal hilerriaren barne erregimena arautzea da, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen mugen eta garapen ahalmenekin bat, eta bereziki Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuarekin bat.

Hau da, Bermeoko Udal hilerriaren zerbitzuak eta horiek egikaritzeko arauak jasotzen dira, beti ere osasuna eta segurtasuna, eta lekuak merezi duen errespetua bermatu daitezen.

Ez dira hemen arautuko, Bermeoko Udalak onartuta dauzkan Ordenantza berezietan araututako hilerrian eraikitzeari buruzkoak eta, Ordenantza ezberdinen artean kontraesanik balego, Ordenantza bereziena nagusituko da.

Ez dira arautuko ere hilerriko emakidak esleitzeko oinarriak. Oinarri horiek, horretarako espreski izapidetutako espedienteetan onartuko dira.

Ordenantzaren beharrezana, lehendik onartuta egon dan Ordenantza zaharkituta eta azken legedira egokitu gabe egotean oinarritzen da. Eta hori kontutan edukita, Ordenantza berri bat onartzea iritzi da egokien, zaharkitua aldatzea baino, segurtasun juridikoa ahalik eta gehien bermatze aldera.

Ordenantzan xedatutakoak, ase nahi diren beharrezanak bermatzeko gutxienekoak dira, eta proportzionaltasunez arautzen dira, osasun eta segurtasunaren babesean beti, eta lekuaren duintasuna gorde dadin.

Eta hori guztia modu gaurkotuan araututa edukitzeak, gardentasunaren argipean aritzea indartzen duen moduan, era arautuan eta normalizatuan jarduteak, administrazioaren funtzionamenduan efizientzia handitzea ekarriko du ezinbestean.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Bermeoko Udalak Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2.j) artikuluaaren arabera esleituta dituen hilerri zerbitzuak ematen ditu, zuzenean, aipatutako

legeko 85.2.a) artikuluan eta Tokiko Araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/986 Errege Dekretu Legegileko 95. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Gainera, Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren 46.2 artikulua arabera, hilerriak, Barne Erregimeneko Arautegi bidez arautuko dira.

2. artikulua

Hori horrela, Araudi honen xedea da Udal Hilerrien Zerbitzua eskaintzeko baldintzak eta moduak arautzea, eta baita ere hilerriaren erabileran osasuna, segurtasuna eta lekuaren duintasuna bermatzeko arauak finkatzea.

Gehigarri gisa, Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudia edota hori ordeztzen edoosatzen duen legedia aplikatuko da.

3. artikulua

Bermeoko Udal hilerriaren kudeaketaren bidez honako helburuak beteko dira:

1. Hilerria kudeatzea, eta bere ordena eta txukuntasuna zaintzea.
2. Gorpuak edota gorpuzkinak hilobiratzea, hobitik ateratzea, erraustea, garraiatzea, hilarriak mugitzea eta osasun-arloan indarrean dauden legeek eskatzen dituzten bestelako jarduerak burutzea.
3. Hilerrian berrezartzeko, gordetzeko, zaintzeko, egokitzeko eta garbitzeko obrak, zerbitzuak eta lanak egitea, behar bezala erabili dadin bermatzeko.
4. Hilerrian partikularrek egingo dituzten obrak kontrolatu eta lizentziak izapidetzea.
5. Emandako zerbitzuaren ondoriozko zergak biltzea.
6. Hilerriaren kudeaketa, Bermeoko Udalaren ahalmenekin bat eta indarrean dagoen legediaren babespean egiten dela bermatzea.

4. artikulua

Aurreko atalean zehaztutako helburuak betetzeko, Bermeoko Udalak hilerri-zerbitzua ondoko hauen bidez eskainiko du:

1. Hilobiak, horma-hilobiak, panteoiak eta hezurtegiak esleitzea, dagokion hileta eskubidearen titulua igorrita.
2. Hileta eskubidearen onuradunak izendatzea eta titularitate aldaketak izapidetzea.

3. Hileta eskubideei eta gordailuei buruzko tituluak izapidetzea eta jaulkitzea, eta titulartasuna egiaztatzeko agiriak egitea.
4. Baimena ematea gorpuak, gorpuzkinak eta giza hondakinak hilobiratzeko, hobitik ateratzeko, murrizteko, garraiatzeko, biltegiratzeko eta errausteko.
5. Udal hilerria kudeatzeko helburuekin bat gainerako eginkizunak betetzea, beti ere Bermeoko Udalak dituen ahalmenen barruan.

Bermeoko Udala, hala eskatzen duten erabiltzaileei lehen aipatutako zerbitzuak eskaini ahal izateko, beharrezkoak diren baliabideez hornituko da, eta zerbitzua behar bezala planifikatuta dagoela bermatu beharko da.

5. artikulua

Aurreko artikuluan zehazten diren zerbitzuengatiko ordainarazpenak unean uneko ordenantza fiskaletan xedatutakoak izango dira.

6. artikulua

Bermeoko Udala hilerriaren barrutian ordena mantentzeaz arduratuko da, baita horko eginkizunei zor zaien begirunea eskatzeaz ere. Horretarako, honako arau hauek betearaziko dira:

1. Araudi honetan jasotzen den hilerriaren barrutia jendearentzako zabalik egongo da, alkatetzak erabakitzen duen egutegi eta ordutegian, hilerriaren kanpoaldean ikusgai egongo dena.
2. Bermeoko Udalak onartutako jaiegunetan hilerria itxita egongo da. Bermeoko Udaleko alkateak, unean uneko beharrianen arabera, hilerria irekitzeko ordutegia aldatu ahal izango du.
3. Bisitariak barrutiari zor zaion begirunearekin jokatu dute uneoro; bestela, arau hori betetzen ez dutenak eskudun diren segurtasun-zerbitzuen bidez kanporatzeko legezko neurriak har ditzazke Bermeoko Udalak.
4. Bermeoko Udalak hilerriko barrutia zainduko du orokorrean; dena den, ez du bere gain hartuko beste inork ehorzte-unitateetan gauzatu ditzazkeen lapurreta eta kalteen erantzukizunik.
5. Hilerriaren barrutian ezingo da ezer saldu ezta inolako propagandarik egin.
6. Erabiltzaileek beren intimitatea eta irudia zaintzeko duten eskubidea dela-eta, ezingo da hilobien edota beste ehorzketa-unitateen grabazio, argazki, marrazki

edota margolanik egin. Era berean, hilerrietara egiten diren bisita orokorrak edo partzialak, eta mota honetako barrutienak berezkoak ez diren ekintzak gauzatzeko, aurretik baimen berezia eman beharko du Bermeoko Udalak, beti ere beste erabiltzaileei zor zaien begirunea zainduta.

7. Hilobi-obretako inskripzioak barrutiko zereginari zor zaion begirunearekin bat etorri beharko dira.
8. Partikularrek baimena eskatu beharko diote Bermeoko Udalari ehorzketa-unitateetan hilarriak, gurutzeak edo bestelako monumentuak ezarri ahal izateko, eta emakidadunaren konturakoa izango dira horien mantentze eta kontserbazio lan egokiak.
9. Gorputegietan, hezurtzegietan eta hilerriko langileentzako bakarrik diren instalazioetan ezin izango da sartu, Bermeoko Udalak baimen berezia ez badu eman.
10. Norbanakoek Bermeoko Udalak xede horretarako ezarriko duen ordutegian bakarrik gauzatu ahal izango dituzte hilobiak garbitzeko, mantentzeko eta apaintzeko lanak. Lan horiek bukatu ondoren, tokia eta ingurua garbitasun eta apaindura baldintza egokietan geratu behar dira eta, hondakinak, zaborrak eta erabili den lan materiala berehala batu behar dira.
11. Hilerrian ezingo da sartu ez txakurrik, ez bestelako animaliarik, itsuen laguntzaile diren itsuaurrekoak salbu.
12. Norbanakoek izango dute hilerrian jarritako lore eta landareen ardura, eta Bermeoko Udalak horiek kentzeko ahalmena izango du bai lore eta landareak ustelak daudelako bai lekuz kanpo daudelako.

7. artikulua

Araudi honen ondorioetarako EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudian edota hori ordeztzen edo osatzen duen legedian ezarritakoa beteko da, hil ondoren gorpu batek aurkez ditzakeen egoerak eta prozesuak lege zehazteko, eta hilerri-zerbitzuak barne hartzen dituen prestazioak xedatzeko.

8. artikulua

Bermeoko Udalak erregistro publiko bat eramango du emakidetan gertatutako gora behera guztiak kudeatu eta jaso, eta baita ere hilobiratu eta erraustutako gorpu edo gorpuzkinak, eta hobitik ateratako eta lekuz adarutako gorpu edo gorpuzkinak jasotzeko. Erregistroak EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren 46.1 artikuluan xedatutakoak jaso beharko ditu gutxienez, hau da: egiten diren hobiratzeak,

deshobiratzeak eta berriro hobiratzeak, egindako data, hildakoaren edo gorpu edo gorpuzkinaren izen-abizenak eta kokapen zehatza.

9. artikulua

4.1. artikuluan aipatzen den ehorzketa-unitateen esleipenak, kasu guztietan, behar bezala egokitutako leku bat barne hartuko du, edota behar bezala egokitzeko moduko lekua eraikitze behar besteko lur eremua.

Gorpuak edo/eta gorpu-hondarrak bertan eduki ahal izango dira hileta-eskubidearen tituluan ezarritako epean. Ehorzketa-unitateak modalitate hauetakoak izan daitezke:

PANTEOIA – Partikularrek Bermeoko Udalak baimendutako obra-proiektuaren arabera egindako eraikuntza. Panteoiek kripta edota kapera izango dute. Kriptatzat ulertzen da sestra azpitik horma-hilobian egindako lurperatzea.

HILOBIA – Lurzoruaren sestra azpitik dagoen ehorzketa-unitatea, lau edo bost hilkutxa hartzeko edukiera duena. Ondoko neurri hauek izango ditu: 2,5 metroko luzera, 0,80 metroko zabalera eta 3 metroko gehieneko altuera.

HORMA-HILOBIA – Helburu horrekin sestra gainean eraikitako eraikuntzatan gordetzen den ehorzketa-unitatea. Ondoko neurri hauek izango dituzte gutxienez: 0,80 metroko zabalera, 0,65 metroko altuera eta 2.30 metroko sakonera. Gorpuez gain gorpu-hondarrak edo errauts-kutxak ere har ditzakete.

HEZURTEGIAK – Sestra gainean eraikitako eraikuntzan txertatutako ehorzketa unitatea. Neurri hauek izango ditu: 0,40 metroko zabalera, 0,40ko altuera eta 0,60ko sakonera. Errauts-kutxak edo gorpu-hondarrak gordetzera xedatzen dira.

10. artikulua

Bermeoko Udalak, plangintza egoki baten bidez, ehorzketa-eskariak asetzeko behar adina hobiratze-espazio egotea bermatuko du.

Udalak, horretarako, planeamendu-tresna gisa, jarduera eta zerbitzuak ezagutu eta kontrolatzeko, 8. artikuluan aipatutako erregistroa eramango du.

Aurrekoez gain, hilerria behar bezala administratzeko beharrezkoak irizten diren bezainbeste erregistro egin ahal izango dira.

Eskabideak eta kexak Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira eta hortik Bermeoko Udalean hilerriaren ardura duen enplegatuari bidaliko zaizkio, jakin eta bideratu ditzan.

11. artikulua

Hobiratzeko unitateetan eraikitze, eraberritze, eraldatze edo konpontze lanak egiteko eta, orokorrean, inskripzioak grabatu edota hilarria, gurutzeak edo bestelako osagaiak jartzeko, egokia den obra lizentzia eskuratu beharko da.

Behin lizentzia eskuratu eta egokiak diren tributuak ordaindu direla egiaztatuta, arau hauek bete beharko dira:

- Lanak behar adina errespetu erakutsita egin beharko dira, esparruak duen eginkizuna kontutan edukita, bereziki ingurunean egin daitezkeen zeremoniei erreparatuta.
- Erakinek ez dituzte emakidan jasota dauden mugak gaindituko, eta ez dute izango emakiden arteko bideetan edo pasabideetan sar daitezkeen teilatu-hegalik ezta erlaitzik.
- Materialak garraiatzeko ibilgailua erabiltzearen beharrezana egongo balitz, ezinbestekoa denean bakarrik erabili ahal izango dira, horretarako baimen espresua eskuratuta, eta hilerriko erabiltzaileei eta gainerako bisitariei trabarik egin gabe.
- Egokia den tailerrean egin daitezkeen lanak ezingo dira hilerrian bertan egin. Hilerrian, lekuan bertan derrigor egin beharrekoak baino ez dira egingo.
- Egingako obrak eta materialak Mendiluz Hilerriko Araudi Arkitektonikoan araututakoarekin bat etorri beharko dira.
- Egingako obrek eta erabilitako materialek ez diete inolako arriskurik eragin behar gainerako erabiltzaile eta bisitariei, ezta hilerriko edo udaleko langileei.
- Aldamuak, hesiak, garabiak edo behar diren bestelako osagaiak erabiltzen direnean, kontuz jokatu da, aldameneko emakidak, bideak, pasabideak edo hilerriko bestelako osagaiak ez kaltetzeko.
- Eraikuntza lanak egiteko behar diren osagai mugikorrak toki egokietan jarriko dira, jendearen joan-etorria ez oztopatzeko, eta lanaldia amaitean bertatik jasoko dira.
- Obrak amaitu ondoren, obra egin den tokia eta ingurunea ondo garbituta eta modu egokian utzi beharko da, beharrezkoa denean, hondakinak eta soberako materialak kenduta.

Arau horiek beteko ez balira, egite aginduak izapidetzeko ahalmena edukiko du udalak, hirigintz legediaren arabera izapidetu daitezkeen zigor espedienteen kalterik gabe.

II. TITULUA: ZERBITZUAK

9. artikulua

Araudi honen xede diren hilerri-zerbitzuen prestazioak betetzeko, erabiltzaileek eskaera formalizatu beharko dute Bermeoko Udalaren aurrean. Eskaerak ofizioz, epailearen

aginduz edo osasun arloan indarrean dagoen legediak ezartzen duelako egin ahal izango dira.

Bermeoko Udalak behin-behineko kontserbaziorako bitartekoak erabiliz programatu ahal izango du zerbitzuen prestazioa; hala ere, Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren 6. artikulua edo Osasun Sailak emandako bestelako arau edo instrukzioek zehaztutako epeak bete beharko dira.

10. artikulua

Behin-behineko kontserbazio-metodoak epailearen aginduz edota zerbitzua antolatzeari dagozkion beharrengatik erabili ahal izango dira, eta, batez ere, ondoko balizko hauetan:

- Gorpuak hilerriaren barrutira ehorzketa ordutegitik kanpo iristen direnean. Balizko honetan, ehorzketa hurrengo egunean gauzatuko da, baldintza jakin batzuek berehala ehorztea aholkatzen dutenean salbu.
- Deskonposizio-seinale argiek edo antzeko beste baldintzek metodo horiek erabiltzea gomendatzen dutenean.

11. artikulua

Edozein arrazoi dela-eta gorpuen deskonposizio berantiarra aurreikusten den ehorzketetan Bermeoko Udalak egoera hori zuzentzeko beharrezkoak diren neurri sanitarioak hartuko ditu.

III. TITULUA : HILETA ESKUBIDEAK

I. kapitulua: Hileta eskubidearen edukia eta izaera.

12. artikulua

Eskatutako zerbitzua jasotzeko eskubidea eta horma-hilobietako eta hezurtegiak hileta-eskubidea, hildako bat egon ondorengo eskaeraren bidez eskuratzen dira. Hilobietako eta panteoietako ehorzketa eskubideen gaineko emakiden kasuan ez da azkeneko baldintza hori bete beharko.

Sepulturen, horma-hilobien, panteoien eta hezurtegien gaineko eskubidearen esleipena gauzatzeko, dagozkion emakidaren bidez, dagozkion tasak ordainduta eta, kasu bakoitzean, araudi honetan ezartzen diren ehorzketa unitateen modalitateetarako ezartzen diren baldintzak beteta egingo dira. Horrela, hilerriak leku mugatua duela kontutan edukita, eta Bermeoko herritarrentzat zerbitzua bermatuta egon behar dela kontuan izanda, horma-hilobien eta hezurtegien emakidak esleitzeko beharrezkoa izango da ondoko ezaugarrietakoren bat betetzea:

- a) Hildakoa Bermeon hil izana.
- b) Hil denean, hildakoa Bermeon erroldatuta egotea.

c) Hildakoak Bermeoko Mendiluz hilerrian senideren bat izatea ehortzita, ahaidetasun balizko hauen barruan:

- Lehen gradura arteko aurreko ahaideak (gurasoak).
- Lehen gradura arteko ondorengoak (seme-alabak).
- Ezkontidea edo Izatezko Bikoteen dagokion Erregistro Ofizialean behar bezala inskribatutako bikotekidea.

Aurreko ezaugarrietakoren bat bete gabeko eskaririk egongo balitz, kasuan-kasuan aztertuko litzateke eta, emakida esleitzeko behar beste lekurik dagoela ondorioztatuko balitz, Bermeoko herritarrentzako beharrezkoa den zerbitzua kolokan jarri gabe, emakida esleitu ahal izango da.

13. artikulua

Emakida dagokion hileta-eskubidearen titulua igorrita formalizatuko da. Hileta-eskubidearen titulua eskumendun organoak ematen du, horretarako dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaindu ondoren.

14. artikulua

Hileta-eskubideko tituluak titularrari esleitutako ehorzketa-unitatean ehortzitako gorpuak eta gorpu-hondarrak emakidan zehaztutako epeaz edukitzeko eskubidea ematen dio.

15. artikulua

Hileta-eskubidea dagokion emakidaren erabilerara mugatzen da, eta araudi honetan eta egon litezkeen aldaketetan jasotako arauetara lotua dago.

16. artikulua

Emakida erregimenean esleitu daitezkeen panteoietarako eta hilobietarako ehorzketa unitateen aldizkako erabilgarritasuna, aurretiaz argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, jendeak eskariak egin ditzan.

Adjudikazioari dagozkion prozedura eta gainerako baldintzak kasuan kasu ezarriko ditu organo eskudunak.

17. artikulua

Ehorzketa ororen gaineko hileta-eskubidea Bermeoko Udaleko Hilerrien erregistroetan inskribatuz eta ehorzketa-unitate bakoitzerako titulu nominatiboa igorritz bermatuko da.

18. artikulua

1. Honako hauek izan daitezke hileta-eskubiden titularrak:

- a) Pertsona fisiko bakarra, legez onartutako ezkontide edo izateko bikotekideen kasuan ezik, titulartasuna ezkontide edo bikotekide biena izateko aukera egongo delako.
- b) Erlijiozko erkidegoak edo administrazioaren onespina jaso duten ongintzako etxeak edo ospitalea, baina soilik kidek eta babesteutako edo hartutako lagunek erabiltzeko.
- c) Irabazteko asmorik ez duten eta legez eratuta dauden fundazioak, elkarteak eta eradundeak, baina soilik kideek erabiltzeko.

2. Guztiz debekatuta dago merkataritzako erakundeak edo irabazteko asmoa dutenak hileta-eskubideen titularrak izatea. Eta bereziki, asegurdunei edo partaideei hobiratzeko eskubidea bermatzen dieten aseguru-etxeak, aurreikuspenekoak, edo antzeko helburuak dituzten erakundeak.

II. kapitulua: Hileta eskubide motak

19. artikulua

Hileta eskubideen tituluak modalitate hauetan eskuratu daitezke:

- a) Aldi baterako emakida. 10 urterako emango da horma-hilobieiei eta hezurtegiei dagokienez. Epe hori ezin izango da luzatu.
- b) Legez ezarritako gehieneko denborako emakida. Legez ezarritako gehieneko denboraz emango dira (gaur egun 75 urte, Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen arabera).

Emakida horiek panteoietarako eta hilobietarako dira, eta epea amaituta, bukatutako eskubidearen titularrak edo bere oinordekoek lehentasunezko eskubidea izango dute horren gainean eta, ildo horretan, Kode Zibileko 1.637, 1656 eta antzeko artikuluetan jasota dauden arauak ezarrito dira, hileta-eskubidearekin bateragarria den esparruan.

20. artikulua

Hileta-eskubideen emakiden adjudikazioak Araudi honetako 8. artikuluan aipatzen den erregistroan idatziko dira.

Titulua egiaztatzen duen dokumentua galduko balitz, kopia berria igorri ahal izateko, udalak, dagokion erregistroan azaltzen diren datuak hartuko ditu kontuan, aurkakoa frogatzen denean salbu.

Erregistroan jasotako datuen akats material edo izatezkoak Bermeoko Udalak zuzendu ahal izango ditu, ofizioz edo alderen batek hala eskatuta. Hileta-eskubidean eragina izan

ditzaketen beste datuen aldaketa egiteko, Araudi honetan aurreikusten diren izapideei jarraitu beharko zaie, interesatuek abiarazi ditzazketen ekintza legalen kalterik gabe.

III. kapitulua: Hileta-eskubideen titularren eskubideak eta betebeharrak

21. artikulua

Hileta-eskubidearen emakidak eskubide hauek ematen dizkio titularrari:

- a) Gorpuak eta gorpu-hondarrak kontserbatzea.
- b) Barrutiaren kontserbazio egokia eta garbiketa orokorra, eta lorategi-zonalde orokorraren zainketa exijitzea.
- c) Bermeoko Udalaren aurrean egoki irizitako erreklamazio oro aurkeztea.

22. artikulua

Hileta-eskubidea emateak ondoko betebehar hauek dakartzkio titularrari:

- a) Igorritako ehorzketa-eskubidearen titulua kontserbatzea. Hori egiaztatzea ezinbestekoa izango da prestazio-eskariari erantzuteko edo obrak baimentzeko.

Titulua galduko balitz, ahalik eta epe laburrenean jakinarazi beharko zaio Bermeoko Udalari, beste titulu bat ahalik eta azkarren igorri ahal izateko.
- b) Obrak egin aurretik, obra lizentzia tramitatzeke eskaria egitea Bermeoko Udalari, berau justifikatzen duten dokumentuekin batera, eta lizentziari dagokion ordaindu beharreko diru-kopurua ordaintzea.
- c) Eraikuntzen kontserbazioa eta garbiketa bermatzea, baita esleitu zaion ehorzketa unitatearen kanpoko itxura zaintzea ere.
- d) Eskatutako prestazioei eta lizentziei dagozkien tarifak edota tasak ordaintzea.
- e) Hilerriaren barrutian portaera egokia izatea. Obrek eta inskripzioek, halaber, barrutiaren funtzioarekiko begirunea izan beharko dute.

IV. kapitulua: Hileta-eskubidea bizien artean eskualdatzea.

23. artikulua

Hileta-eskubidearen emakida bizien arteko egintzaren bidez eskualdatu ahal izango da, doan eta lerro zuzeneko ahaideen artean, eta zeharkakoa laugarren mailara arte, biak hala biak odol-ahaidetasunez, eta bigarren mailara arte ezkontza ahaidetasunez. Era berean, ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen (dagokion erregistro ofizialean behar den bezala inskribatutakoa) eta lehen aitatutako mailetatik kanpoko senideen alde ere egin ahal izango da, baldin eta ehorzketa-eskubidearen titularrarekin gutxienez 5 urteko elkarbizitza egiaztatzen badute (eskualdatzearen aurreko bost urteetan).

V. kapitulua: Hileta-eskubidea heriotzaren ondorioz eskualdatzea.

24. artikulua

Hileta-eskubidearen titularrak bera hil ondoren emakidaren onuraduna izango den onuradun bakarra izendatu ahal izango du. Horretarako, Bermeoko Udaleko idazkariarengana jo beharko du, eta bertan dagokion akta sinatuko du. Aktan hauek adieraziko dira: ondasunaren datuak (hilobia, horma-hilobia, panteoia...) onuradunaren izen-abizenak eta helbidea, eta dokumentuaren data. Akta horretan, emakidaren titularrak ordezkari onuradun bat ere izendatu ahal izango du, lehenengoa aurrez hiltzen bada. Agertze hori notario aurrean egin ahal izango da.

Onuradunaren izendapena berariaz soilik aldatu ahal izango da edo adierazitakoa gauzatu ondorengo testamentu-klausula bidez.

25. artikulua

Hileta-eskubidearen titularra hiltzean, izendatutako onuradunak, testamentu bidezko oinordekoak edo aurreko artikuluen arabera "abintestato" dagokionak, bere aldera eskualdatu beharko du titulua, gehienez ere urtebeteko epean. Horretarako, egokia den eskaria aurkeztuko beharko da, eskualdaketa justifikatzen duten eta dagokion titulua egiaztatzen duten dokumentuekin (testamentua, azken nahiak...).

Era berean, aldaketa eskatzera behartuta egongo dira titulartasun aldaketarik eskatu gabe tituluen jabe direnak. Horretarako, araudi hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epea izango dute.

Aipatutako epe hori hileta-eskubidearen titulartasun aldaketa eskatu gabe igaroko balitz, Bermeoko Udalak, titulua iraungi dela adierazi eta ondasuna berreskuratzeko administrazio espedienteak izapidetu ahal izango du.

26. artikulua

Hileta-eskubide baten titularrak onuradun bat izendatuta badu, eta azkeneko horrek titularra hil dela justifikatu eta bere identitatea erakutsi ostean, eskualdaketa egingo da. Eskualdaketa onartuta, titulu berria igorriko da, dagokion erregistroan jasoko da eta ordenantza fiskaletan jasotako tasak kitatuko dira.

27. artikulua

Hileta-eskubidearen emakidadunaren azken nahietako erregistroko ziurtagiritik testamentua dagoela ondorioztatuko balitz, testamentu bidezko oinordetza zabalduko da, eta eskualdaketa izendatutako oinordekoaren alde egingo da, onuraduna testamentua egin eta gero izendatu denean izan ezik.

28. artikulua

Testamentu egileak bere herentzia oinordeko baten baino gehiagoren alde eginez gero, eskubidea herentzian parte hartze handiena duenaren alde eskualdatuko da.

Ezin izango balitz zehaztu nori eskualdatu behar zaion, hileta-eskubidearen eskualdaketa oinordeko zaharrenaren alde egingo da, eta horrek onartuko ez balu, zaharrenetan bigarrenaren alde, eta horrela hurrenez hurren. Hori guztiori, oinordeko guztien artean edo ordenantza honetako 20. artikuluan zehaztutako mailara arteko senideen artean, aho batez, eskubide horren beste titular bat izendatzearen kalterik gabe. Horretarako, guzti-guztiek dagokion akta sinatu beharko dute, udaleko idazkariaren aurrean egingo dena.

29. artikulua

Onuraduna izendatzeko aktan edo testamentuan jasotako gozamen legatuak hileta-eskubidearen emakida gozamendunaren alde eskualdatzea eragingo du, eta bera hiltzean desegingo da hori.

30. artikulua

Izendatutako onuradunik eta testamentu oinordetzarik ez balego, hileta-eskubidearen emakida Lege Zibilean araututako oinordetza ordenaren arabera eskualdatuko da. "Ab intestato" eskubidedun pertsonak egonez gero, aurreko artikuluetako arauak hartuko dira kontuan.

VI. kapitulua: Hileta eskubidea behin-behinekoz eskualdatzea.

31. artikulua

1. Eskualdaketa ezin bada gauzatu aurreko artikuluetan araututako moduen arabera, bai ezin izan delako eskubidearen titularraren heriotza justifikatu, bai dokumentazioa urriegia delako edo eskubideen jabe izan litekeen pertsonarik ez dagoelako, eskatzen duenaren aldeko behin-behineko titulu bat egin ahal izango da.

2. Behin-behineko eskualdaketa horiek egiteko administrazio espedienteak izapidetu beharko da eta ordenantza fiskaletan araututako tasak ordaintzea eskatuko du.

Espediente horretan, Behin-behineko eskualdaketa iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taulan, gehienez ere egutegiko 30 eguneko epean, eskubidea dutela uste dutenek eskualdaketa kontra egiteko aukera izan dezaten.

32. artikulua

1. Behin-behinekoz egindako eskualdaketen ondorioz egindako tituluak eskubide hobia duten hirugarrenei kalterik eragin gabe egingo dira.

2. Galarazita egongo da behin-behineko titulua eskuratu eta gero gorpuak edo gorpu-hondarrak hilobitik ateratzea, horiek ateratzeko eskatzen duen behin-behineko titularraren edo senidearen ezkontidearenak edo izatezko bikotekidearenak, aurreko ahaideenak edo odol- edo ezkontza-ahaidetasunez laugarren mailara arteko alboko ahaideenak ez badira.

33. artikulua

Hileta-eskubidearen behin-behineko titulua igorri eta hogeit hamar urte igarotakoan, eskubide horren emakida behin betiko bilakatuko da, eta titularitatea erreklamatu zezaketenek eskubidea galduko dute. Hileta-eskubidearen behin betiko eskualdaketa egiteko, ordura arte eskubidearen behin-behineko emakidaduna izan denak dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

VII. kapitulua: Hileta-eskubidea iraungitzea

34. artikulua

Hileta-eskubidearen emakida kasu hauetan iraungiko da:

- a) Emakidetan ezarritako epea igaro delako.
- b) Emakida berreskuratzen denean, interes publikoko arrazoiak direla eta, inolako kalte-ordain barik.
- c) Eraikuntzen aurri egoerarengatik. Aurri-deklaraziorako administrazio espedienteak ireki eta ebatzi beharko da horretara eta, edozein kasutan, udal arkitektoaren txostena jasoko da eta interesatuari entzunaldia emango zaio.
- d) Titularra hil zenetik urtebete igaro eta balizko onuradun edo herentziaz edo beste tituluren baten bidez subrogatutako pertsonak hileta-eskubidea beraiei alde eskualdatzeko eskatu ez dutenean.
- e) Titularrak berariaz uko egin diolako. Ukoa idatziz aurkeztu beharko da ehorzketa-eskubidearen emakida eman zuen organoaren aurrean.
- f) Hileta-eskubidea araudi honetan ezarritakoaren kontra erabiltzeagatik.
- g) Eraikuntza, aurri egoeran egon ez arren, egoera txarrean dagoelako arriskutsutzat jotzen denean eta hileta-eskubidearen emakidadunak ez duenean konpontzeko obligazioa betetzen. Balizko horretan, dagokion espedienteak tramitatu ostean, Bermeoko Udalak eraikuntzako akatsak konpontzeko egin beharreko obrak egiteko aginduko dio emakidadunari. Dagokion obra lizentzia eskatzeko emango den epea sei hilabetekoa izango da, agindua jakinarazten denetik, eta beste sei hilabetekoa obrak gauzatzeko, lizentzia ematen denetik zenbatzen hasita. Arriskua berehalakoa izango balitz, epeok hamabost egunera arte murriztuko lirateke. Hori guztiori udalak, interesdunaren pentzura, pertsonen eta ondasunen kalteak eragozteko har ditzazkeen neurrien kalte gabe.

Hileta-eskubidearen emakidadunak, ezarritako epeen barruan, ez balitu konponduko adierazitako akatsak, Bermeoko Udalak iraungitze-espedientea irekiko luke.

- h) Ordenantza honetan zehaztutako arauen kontrako hileta-eskubideen edo eraikuntzen transmisioak egiteagatik.

III. TITULUA : EHORZTEKO ETA HILOBITIK ATERATZEKO ARAUAK

I. kapitulua: Arau orokorrak

35. artikulua

Bermeoko Mendiluz Hilerriko ehorzketak eta lurpetik ateratzeak EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren eta berau ordeztzen edo osatzen duen legediaren arabera egingo dira, eta Bermeoko Udalak ezarritako zerbitzu-antolaketara egokituko dira.

36. artikulua

Titulu honen eraginetarako, definizio hauek hartu beharko dira kontuan:

Gorputua: giza gorputa, hil eta hurrengo bost urteetan, epe hori zenbatzen hasteko Erregistro Zibilean heriotza inskripzioan jasotako data eta ordua hartzen dira kontuan. Era berean, hil zenetik bost urte igaro arren materia organikoa deuseztatzeko fenomenoak amaitu gabe dauzkan giza gorputa ere gorputzat hartzen da.

Gorpu-hondarrak: hil ondoren bost urte igaro eta gero giza gorputik geratzen dena, baldin eta materia organikoa deuseztatzeko fenomenoak amaitu badira.

Gorpuzkiak: ebakuntza kirurgikoetatik, anputazioetatik edo abortuetatik ateratako entitate nahikoa duten atalak.

II. kapitulua: Ehorzteak

37. artikulua

Bermeoko Udaleko alkate-udalburuak eskumena izango du ehorzketa lizentziak emateko.

38. artikulua

1. Ehorzketak egiteko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Hobiratuko dan lekuaren titulua, leku horretan ehorzteko titularraren baimena izatearen zinpeko aitortpena edo, titularraren heriotza gertatu bada, oinordeko izatearen egiaztagiria edo zinpeko aitortpena. Titulua udalaren esku badago, ez da beharrezkoa izango aurkeztea eta udalak ofizioz egingo du horren gaieneko egiaztapena.
- b) EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren eta berau ordeztzen edo osatzen duen legediak unean-unean eskatzen dituenak.

2. Ehorzketak hirugarren eskubideen kalterik gabe egingo dira eta, zuzenean exekutatuko dira. Behin ehorzketa exekutatuta eskubidearen titularra ados egongo ez balitz, egokiak diren errekursoak aurkezteko eskubidea izango du, baina inolaz ere ezingo da ehorzketa atzera egin, deshobitzeko baldintza guztiak betetzen ez badira.

Eta hori guztia, deshobitzeko epategietako agindua jaso eta berau betetzeko beharraren kalterik gabe.

3. Bermeoko Udalak ez du erantzungo gorpuarekin ehorzten diren baliozko objektuengatik, hala nola, erlojuak, bitxiak, urrezko haginak, etab.

39. artikulua

Ehorzketari dagokion emakidan beste gorpu edo gorpuzki batzuk badaude, horiek murriztu ahal izango dira horretarako lege baldintzak betez gero. Horrela egitekotan, emakida berean utziko dira, emakidaren titularrak lekuz aldatzeko berariaz eskatzen ez badu.

Murrizketa hori ezin izango da inoiz egin, gorpua hobiratu den egunetik hiru urte igaro arte, ez bada epategietako agindua dagoela horretarako.

Gorpua lekuz aldatuz gero, horretarako lege baldintza bete beharko dira edota epategietako agindua aurkeztu beharko da.

40. artikulua

Emakida bakoitzean egin daitezkeen ondoz ondoko ehorzketen kopurua, emakidaren edukierak mugatuko du, aurreko artikuluan gorpuzkinak murrizteko dagoen aukera aintzat hartuta.

Hala ere ezingo da ehorzketa berririk egin azken gorpua ehortzi zanetik 3 urte igaro ez badira, edota epe hori igarota, materia organikoa usteltzeko prozesua amaitu gabe badago, ez bada epategiko agindua dagoela ehorzketa hori egiteko.

41. artikulua

Ehorzketa bat egiteko baldintza hauek bete beharko dira, EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren eta berau ordeztzen edo osatzen duen legediak unean-unean eskatzen dituenaz gain:

- a) Gorpuak ehorzteko: hilerriko ardura duen erakundeak medikuak emandako heriotza-ziurtagiriaren kopia edo Erregistro Zibileko heriotza-inskripzioaren egiaztagiria, eta ehorzteko lizentzia eskatu beharko ditu. Horma-hilobietan eta hezurtegietan ehorzteko, horrez gain, araudi honetako 12. artikuluan zerrendatutako baldintzetako bat betetzen dela egiaztatzen duten dokumentuak ere eskatuko dira.
- b) Gorpuzkiak ehorzteko: hilerriko ardura duen erakundeak medikuaren ziurtagiriaren kopia (anputazioarena, abortuarena...) eta ehorzteko lizentzia eskatu beharko ditu.

- c) Gorpu-hondarrak ehorzteko: hilerriko ardura duen erakundeak gorpu-hondarrak hilobitik ateratzeko baimena eskatuko du.

42. artikulua

Hileta-enpresak behartuta daude aurreko xedapen guztiak zorrotz betetzera, eta gorpua jatorriko lekura itzuli beharra duten senideei eragindako kalte-galeren erantzuleak izango dira.

43. artikulua

Gorpuen ehorzketetan, gorpu bakarra sartuko da ehorzketa bakoitzean, ez bada ehortzi beharreko gorpuak ama eta jaioberriarenak direla.

44. artikulua

Gorpuetan egin beharreko manipulazio guztiek osasun baimena edo parte hartzea behar dute. Ondorioz, gorpuak aldi baterako kontserbatzeko, baltsamatzeko, errausteko edota beste edozein operaziotarako eskariak osasun-agintari eskumendunek baimenduta eta esku hartuta egin beharko dira.

III. kapitulua: Gorpuak eta gorpuzkiak ateratzea

45. artikulua

1. Gorpuak eta gorpuzkiak ateratzeko sanitate-baimena beharko da, eta EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren eta berau ordeztzen edoosatzen duen legediak unean-unean arautzen dituztenak bete beharko dira derrigor.

2. I. eta II. taldeko gorpuak ezingo dira atera.

3. Ezingo dira III. taldeko gorpuak atera ehortzi eta 5 urte bete arte, ez bada horrelako kasuren bat ematen dela.

a) Horretarako Epaitegiko agindu zehatza egotea.

b) Baltsamatutako gorpua izatea. Kasu hauetan jarraitu beharreko osasun eta higiene baldintza ezarri beharko dira.

c) Instalazioen hondatzea edo natura-hondamendia egon delako.

d) Hilkutxa jarraian zehaztutako egoeraren batean badago, hilerrian bertan ehorzteko baldintzarekin:

- Hilkutxa arrunta. Hilotza hartzeko hainbateko dimentsioak eduki beharko ditu, eta materialek eta fabrikazio-ezaugarriek, gutxienez, ondoko espezifikazioak izan beharko dituzte: UNE 11-031-93 Arauan jasotakoak edo etorkizunean

aplikatzekoak izango direnak. Ehorzketetarako nahiz errausketetarako erabili ahalko dira hilkutxa hauek.

- Trasladoak egiteko hilkutxa berezia. Bi kutxa izan beharko ditu. Aurreko idatz-zatian zehaztutako ezaugarriak eduki beharko ditu kanpoaldeak, eta bata besteari soldatutako zinkezko xaflez egindakoa izango da barruko kutxa edo teknikoki estankotasun-baldintzak dituen beste edozein materialez egindakoa (esate baterako, berunez). Ixteko beste teknika eta produktu batzuk erabiltzeko, Osasun Sailaren aurretiazko baimena beharko da. Trasladoak egiteko hilkutxa bereziak honakoak izango dira: barrualdean gasen presioaren eraginak baztertzeko egokiturik egon behako dute, balbula iragazleak edo beste dispositibo egoki batzuk erabiliaz.

- Bilketa-hilkutxa. Zurruna, dimentsio egokietakoa, iragazgaitza eta erraz garbitu eta desinfektatzekoa izango da. Heriotza jazo den lekutik ondokoak egingo diren lekuetara bitartean bakarrik erabiliko dira: praktika judizialak, irakaskuntzako edo arlo zientifikoko helburudun praktikak, eta beilatokira garraiatzea.

4. Bost urte igarotakoan desehortzi diren hilotzak, baldin eta materia organikoa desegiteko fenomenoak amaitu ez badira eta beste hilerri batera eraman behar badira, hil-oihal biodegradagarri, iragazgaitz eta erregarri baten sartu beharko dira. Hileta-enpresa erregistratu batek egin beharko du garraioa, eta hilkutxa arrunta erabili ahalko da. Trasladoak egiteko hilkutxa berezietan ehortzitako hilotz-hondarren garraioa egiteko, kanpoko kutxa ordeztu egingo da.

5. Ekaina, uztaila, abuztua eta irailan ez da gorpurik aterako, ez bada horretarako Epaitegiko agindua dagoela, Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuarekin bat.

6. Gorpua ateratzeko hauetako agiri bat aurkeztu beharko da:

- a) Hobitik aterako den lekuaren titulua edo titularraren baimena izatearen zinpeko aitortpena.
- b) Hobitik aterako den lekuaren Deshobitzea eskatzeko eskubidea kreditatzen duen agiria edo zinpeko aitortpena.
- c) Epaitegiko agindua.

IV. kapitulua: Gorpu-hondarrak ateratzea eta erretzea

46. artikulua

1. I. taldeko gorpu-hondarrak ezingo dira atera.

2. II. taldeko gorpu-hondarrak ateratzea babes erradiologikoaren gaineko ahalmena duen agintariak emandako instrukzioen menpe geratuko dira.
3. Gorpu-hondarrak ateratzeko, sanitate-baimena beharko da beste herri bateko hilerrian hobiratzeko bada, eta kasu honetan, garraioa hondarren kutxan egingo da. Hilerrian bertan ehorzteko garraioa hondarren poltsan egin ahal izango da.
4. Gorpu-hondarrak atera ondoren hilerrian bertan erre ahal izango dira, eta berdin egin ahal izango da hilerrian bertan hilobiratzeko kanpotik ekartzen diren gorpu-hondarren kasuan.
5. Horretaz gain, hauteko agiri bat aurkeztu beharko da:
 - a) Hobitik aterako den lekuaren titulua edo titularraren baimena izatearen zinpeko aitortpena. Titulua udalaren esku badago, ez da beharrezkoa izango aurkeztea eta udalak ofizioz egingo du horren gaieneko egiaztapena.
 - b) Hobitik aterako den lekuaren Deshobitzea eskatzeko eskubidea kreditatzen duen agiria edo zinpeko aitortpena.
 - c) Epaitegiko agindua.
6. Ekaina, uztaila, abuztua eta irailan ez da gorpuzkinik aterako, ez bada horretarako Epaitegiko agindua dagoela, Euskal Autonomi Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuarekin bat.
7. Edozein kasutan EAEko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudiaren eta berau ordeztzen edo osatzen duen legediak unean-unean arautzen dituztenak bete beharko dira derrigor.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean sartu aurretik ehorzteko edozein formari buruz emandako emakidek 75 urteko iraupena izango dute, emakida eman zenetik aurrera zenbatuta.

Emakida eman zeneko data zehaztu ezin den kasuetan, 75 urteko epe hori araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatuko da.

Hori guztiori araudi honetan jasotako xedapenen arabera beste eskari bat egitearen kalterik gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honen bidez baliogabetzen dira Araudi honetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta aurretik onartuta egon den Bermeoko Udal Hilerriaren Barne Antolakuntza Araudia (BAO, 221 zenb., 1993ko irailak 13, astelehena).



